



IGANTZIKO UDALA

IGANTZIKO UDALERRIAN ABELTZAINZAKO TOKIKO AZPIEGITURAK HOBETZEKO OBRA KONTRATAZIOA

-B GUTUNAZALA IREKITZEA (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK)-

- **TOKIA:** Igantziko Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2023-06-16
- **ORDUA:** 08:30
- **KONTRATUAREN XEDEA:** Abeltzaintzako ustategietarako nahiz araubide estentsiboan aprobetxatutako belardi eta larreetarako sarbidea ematen duten bide-azpiegiturak hobetzea.
- **PROZEDURA:** Irekia.

BERTARATUAK:

- **ALKATEA:** Juankar Unanua Navarro.
- **IDAZKARIA:** Nagore Madariaga Iriarte.

Igantzin, 2023ko ekainaren 16an, goizeko 8:30etan Igantziko Herriko Etxean egindako barne ekitaldian, kontratu organoa eta unitate kudeatzailea batu dira, 2023ko maiatzaren 25eko 80/2023 Alkate Ebazpen bidez onartutako baldintza agirian xedaturiko "Igantziko udalerrian abeltzaintzako tokiko azpiegiturak hobetzeko obra kontratua" lizitazioaren izapideekin jarraitzeko.

Jarraiki, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 97. artikuluan xedaturikoaren arabera, B gutunazala ireki egin da eta hau izan da emaitza:

ENPRESA IZENA:	IFK ZENBAKIA:	ESKaintza EKONOMIKOA (90)	LANGILE KOPURUA (10)	GUZTIRA	HURRENKERA
I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L.	B71143911	67.700,00 (86,20)	0	86,20	2º
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	B31544075	61.971,43 (90,00)	3	93,00	1º
MENDEBERRIA ESKABAZIOAK, S.L.	B71034631	69.630,82 (80,10)	0	80,10	4º
FRANCISCO JAVIER IRATZOKI TABERNA	****1074*	68.934.51 (80,91)	0	80,91	3º

Halaber, MENDEBERRI ESKABAZIOAK, S.L. enpresak aurkeztutako IV. eranskina okerra dela ikusi da. Izan ere, 2023ko ekainaren 2an, IV. eranskina okerra zela ikusirik, argibidea argitaratu zen Nafarroako Kontratazio Atalean IV. eranskin zuzenarekin.



IGANTZIKO UDALA

Zentzu horretan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 97. artikuluko azkeneko paragrafoan xedaturikoari jarraiki, nahiz eta aurkezturiko eranskina zuzena ez izan, eskaintza ezin denez aldatu, plegu arautzaileko 14. klausulan adierazitakoaren arabera, zuzendaritza-postuetan edo lanpostu kualifikatuetan kontratatutako emakumeak eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten kontratatutako langileak 0 direla ondorioztatzen da.

Horrela bada, plegu arautzaileko 15. klausulan xedaturikoaren arabera, SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresari (bera izan baita puntuazio altuena jaso duena), jakinarazpena jaso eta 7 EGUN NATURALEKO EPEAN, aipaturiko klausulan xedaturiko dokumentazioa aurkeztea errekeritzen zaio.

Behin agiriak aurkeztu, eta unitate kudeatzaileak egiaztatu ostean, haren izenean egingen da esleipen proposamena.

Aztergai gehiagorik gabe, bilkura 9:00etan amaitu da, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean. Horri buruzko akta hau idatzi da.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako akta hau sinatzen dugu.

Igantzin, 2023ko ekainaren 16an.

JARDUNEKO ALKATEA,

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Juankar Unanua Navarro

Nagore Madariaga Iriarte